



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko apirilaren 30a

30 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

—Foru Legea, Nafarroako Gobernuari baimena ematen diona industri lurzorua sustatzeko asmoz eratzen den sozietateari industrialdeetako lurak emateko eta sozietate horri zenbait zerga onura ematen dizkiona. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

—Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Goi Batzarra arautzen duen Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak eta Mozioak:**

—Mozioa, Nafarroako Gobernua kontrapasan ehizan aritzeari buruz neurriak hartzera premiatzen duena. Osoko Bilkurak baztertua (6. or.).

—Ebazpena, Barañaingo Udalaren gaineko Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Mozioa, Nafarroako Gobernua Konstituzio Auzitegiaren 1997ko martxoaren 20ko epaiari egokitzen zaion Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Lege proiektua bidaltzera premiatzen duena. Osoko Bilkurak baztertua (7. or.).

—Ebazpena, Nafarroako Gobernua Karlismoarekin loturiko eta balio historikoa duten gauzakiak berreskuratzen premiatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Mozioa, Nafarroako Gobernua Nafarroako Hazienda Publikoaren zerga-bilketan erakunde lokalek duten partaidetzari buruzko Foru Lege proiektua bidaltzera premiatzen duena. Osoko Bilkurak baztertua (7. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- “Okil gibelnabarra” izeneko espezie babestuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Foru Administrazioaren Itoizko urtegierekiko eta Nafarroako ubidearekiko jarduketak koordinatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari dagokion “kreditu erreserba”ri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Lurzati kontzentrazioko eskualdeetan “Ustiategiaren oinarritzko azalera”k izenekoak ezartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Husketen kalitatea hobetzeko laguntzak emateari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Tuterako hondakin urak arazteko aurreikuspeni buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Marcillako D.B.H.ko ikastetxean batxilergoa aldatu edo destolesteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Unibertsitatez besteko irakaskuntzan baimendu, diruz lagundu eta itundu diren unitate guztiei eusteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Ondasun higigarriak kontserbatu eta konpontzeko eman diren laguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagokion “Kreditu erreserba”ri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari dagokion “Kreditu erreserba”ri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Telefonia mugikorraren instalazioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

---

**A Saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, Nafarroako Gobernuari baimena ematen diona industri lurzoria sustatzeko asmoz eratzen den sozietateari industrialdeetako lurrak emateko eta sozietate horri zenbait zerga onura ematen dizkiona**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko apirilaren 24an egindako Osoko Bilkuran, hurrengo Foru Legea onetsi zuen: Nafarroako Gobernuari baimena ematen diona industri lurzoria sustatzeko asmoz eratzen den sozietateari industrialdeetako lurrak emateko eta sozietate horri zenbait zerga onura ematen dizkiona.

Biltzarreko Erregelamenduko 143 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñea, 1997ko apirilaren 25a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Foru Legea, Nafarroako Gobernuari baimena ematen diona industri lurzoria sustatzeko asmoz eratzen den sozietateari industrialdeetako lurrak emateko eta sozietate horri zenbait zerga onura ematen dizkiona**

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Nafarroako egitura ekonomikoan industri sektoreak duen garrantzia kontuan harturik, oso beharrezkoa da sektore hori sustatu eta finkatzeko behar diren azpiegiturak sortzea, Foru Komunitatearen garapen iraunkor eta lurralde guztietan orekatua lortzeko helburu orokorraren barruan. Horretarako, garrantzizkoa da enpresak ezartzeko industri lurzoru eskuragarria, behar bezala banatu eta hornitua izatea.

Behar horri erantzun nahian, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitatearen kapital publikoa izanen duen sozietate bat eratzeko beharra ikusi du, izan ere, aterabide horrek, lurzoru industrialaren arloan Nafarroan sustatu gogo den politika garatu eta gauzatzeko baliabide bizkor eta eraginkorra izateaz gain, politika horren finantzazioan interesaturiko finantza entitateek ekarritako bali-

bide pribatuak sartzeko bide emanen baitu, baina beti ere sozietatearen kapitalaren gehiena Foru Komunitatearen ekarpena izanen da.

Kontuan harturik, eratu gogo den sozietate horretan Nafarroako Gobernuak izanen duen partehartze zuzena lursailen ekarpenetan oinarrituko dela, hau da Gobernuak berak sustaturiko industrialdeetan kokaturik egon eta haren titulartasuna duen lur urbanizatu zein urbanizatugabeak ekarritz, eta horien balioak Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legearen 11.2 artikuluan aipatzen den muga (200 milioi pezeta) dezente gainditu dezakeela, manu horretan adierazitakoari jarraikiz, ondasun horiek sozietatearen esku utzi ahal izateko, beharrezkoa da Nafarroako Parlamentuaren baimena izatea.

Gainera, Sozietatearen helburuak ikusirik, bidezkoa da hari zenbait zerga onura eskaintzea, bai Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, bai Sozietateen gaineko Zergan.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio industri lurzoria sustatzeko asmoz kapital publikoarekin eratuko den sozietatearen kapitalaren barruan sartzeko, berak sustaturiko industrialdeetan kokaturik egonda, Gobernuaren titulartasuna duten lursail urbanizatuak zein urbanizatugabeak, den-denak edo bakar batzuk.

Ekarpen horren balorazioa egiteko, kasuan-kasuan aplikagarri den merkataritzako legerian ezarritakoari jarraikiko zaio.

#### **Xedapen Gehigarria**

Industri lurzoria sustatzeko asmoz, Nafarroako Gobernuak eratuko duen sozietateak honako zerga onura hauek izanen ditu:

Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan:

– Kapitala eratu eta handitzeko eragiketen gaineko zergaren kuotan % 99ko beherapena izanen du eta, halaber, bere helburuak betetzearren maileruak jaulkitzeko egiten dituen eragiketetan.

– Industrialdeak sustatzeko lurak erosteko eta poligono horietako lurzati urbanizagarriak saltzeko eragiketen gaineko zergaren kuotan % 95eko beherapena izanen du.

Sozitateen gaineko Zergan:

Sozietateak sustatzen dituen industrialdeetako lurak besterentzeagatik etorritako errentei dagokien kuota osoaren gainean, % 99ko hobaria aplikatuko zaio, beti ere lorturiko dirua industri lurzoruak sustatzeko erabiltzen bada, besterentzen denetik 5 urteko epearen barruan.

#### **Azken Xedapena**

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B Sails:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Goi Batzarra arautzen duen Foru Lege proposamena**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Biltzarrak, 1997ko apirilaren 24an egindako Osoko Bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Goi Batzarra arautzen duen Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki zuen. Proposamen

hori 1997ko otsailaren 28ko 14 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko apirilaren 25a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeari buruzkoa**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Biltzarrak, 1997ko apirilaren 24an egindako Osoko Bilkuran, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztutako Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeari buruzko Foru Lege proposame-

na bazter uztea erabaki zuen. Proposamen hori 1997ko otsailaren 21eko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko apirilaren 25a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**E SAILA:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

---

**Mozioa, Nafarroako Gobernua kontrapasan ehizan aritzeari buruz neurriak hartzera premiatzen duena**

*OSOKO BILKURAK BAZTERTUA*

Biltzarrek, 1997ko apirilaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Andres Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernua kontrapasan ehizan aritzeari buruz neurriak hartzera premiatzen duena, baztertu zuen. Mozio hori 1997ko apirilaren 1eko 22

zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko apirilaren 25a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**Ebazpena, Barañaingo Udalaren gaineko Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiari buruzkoa**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, "Barañaingo Udalaren gaineko Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiari buruzko Ebazpena", 1997ko apirilaren 24an egindako Osoko Bilkuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñea, 1997ko apirilaren 25a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**Ebazpena, Barañaingo Udalaren gaineko Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiari buruzkoa**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ezarritako legezko epeetan, "legearen interesaren arabera" kasazio errekurso bat aurkeztera, antolamendu juridikoan aitorturiko hizkuntza eskubideak errespetatzen direla bermatzearen, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 1997ko otsailaren 20an Barañaingo Udalarari buruz eman zuen Epaiaren aurka.

## **Mozioa, Nafarroako Gobernuaren Konstituzio Auzitegiaren 1997ko martxoaren 20ko epaiari egokitzen zaion Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Lege proiektua bidaltzera premiatzen duena**

### *OSOKO BILKURAK BAZTERTUA*

Biltzarrak, 1997ko apirilaren 24an egindako Osoko Bilkuran, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernuaren Konstituzio Auzitegiaren 1997ko martxoaren 20ko epaiari egokitzen zaion Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Lege proiektua bidaltzera premia-

tzen duena, baztertu zuen. Mozio hori 1997ko apirilaren 21eko 28 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko apirilaren 25a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

## **Ebazpena, Nafarroako Gobernuaren Karlismoarekin loturiko eta balio historikoa duten gauzakiak berreskuratzea premiatzen duena**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, "Nafarroako Gobernuaren Karlismoarekin loturiko eta balio historikoa duten gauzakiak berreskuratzea premiatzen duen Ebazpena", 1997ko apirilaren 24an egindako Osoko Bilkuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñea, 1997ko apirilaren 25a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Ebazpena, Nafarroako Gobernuaren Karlismoarekin loturiko eta balio historikoa duten gauzakiak berreskuratzea premiatzen duen**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du beharrezko baliabideak abiaraz ditzan Karlismoarekin zerikusia izanik balio historikoa duen materiala berreskuratzeko eta museo edo toki egokian gordetzeko, gaiari buruzko ikerketa zentroa bultzatzearekin batera.

---

## **Mozioa, Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Hazienda Publikoaren zergabiltzetan erakunde lokalek duten partaidetzari buruzko Foru Lege proiektua bidaltzera premiatzen duena**

### *OSOKO BILKURAK BAZTERTUA*

Biltzarrak, 1997ko apirilaren 24an egindako Osoko Bilkuran, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Hazienda Publikoaren zergabiltzetan erakunde lokalek duten partaidetzari buruzko Foru Lege proiektua bidaltzera premiatzen

duena, baztertu zuen. Mozio hori 1997ko apirilaren 21eko 28 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko apirilaren 25a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**F Saila:**  
**GALDERAK**

---

## “Okil gibelbarra” izeneko espezie babestuari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Okil gibelbarra” izeneko espezie babestuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Okil gibelbarra” izeneko espezie babestuari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du:

1.- Zer azterketa, jarraipen eta jarduerak egin dute posible espezie hori arriskuan jartzen duten faktore nagusiak ezagutzea? Hurrengoak eskatzen dira: izena, jarduketaren deskripzio laburra, egin dituen entitate, erakunde edo enpresa eta haietariko bakoitzaren aurrekontua.

Hiru azterlan egin dira gaur egunera arte, okil gibelbarra Nafarroan zehar nola banatzen den, oihan egiturak harengan duen eragina eta autoekologiari buruz. Leongo Unibertsitateko biologia doktore den Carmelo Fernández León jaunak egin ditu hirurak ere:

– “Okil beltzaren (*Dryocopus martius*), okil ertainaren (*Dendrocopos medius*) eta okil gibelbarraren (*Dendrocopos leucotos*) habitataren korologia eta xehetasunak Nafarroan” (Fernández, 1992); 0056/1992 Foru Aginduz kontratatu zen, 1.776.225 pezetako aurrekontuarekin.

– “Oihan egiturak okil gibelbarraren (*Dendrocopos leucotos*) eta okil beltzaren (*Dryocopus martius*) dentsitatean eta banaketan duen eragina Nafarroako Kintoan”. Aurrekontua: 2.298.850 pezeta. 157/1993 Foru Aginduz kontratatu zen.

– “Nafarroako okil gibelbarra (*Dendrocopos leucotos*) berreskuratzeko planarendako demografia faktoreen azterketa eta oinarritzko dokumentazioa”. 1840/1995 Ebazpenaren bitartez kontratatu da eta gastuak 2.475.000 pezeta jo du.

Azterlan horiei esker (“galtzeko arriskuan”, okil ertaina, konparazione, edota “ahul xamar”, okil beltza, kasu, dauden beste okil espezie batzuei buruzko atalak ere badituzte), Nafarroako okil gibelbarraren eskualde-zentsua eta tokiko banaketa eta espeziearen biologia ongi ezagutzen ditugu.

2.- Zenbat ale ditu espezie horrek gure Komunitatean? Zer azalera uste da haren natur habitatek gaurregun hartzen dutela?

Egindako azterlanak oinarritzat harturik, Nafarroako Pirinioan 60-80 bikote okil gibelbar daukela esan daiteke, Espainiako Pirinioko populazioaren %95etik goiti, eta *Dendrocopos leucotos* lilfordi subespezie endemikoaren Pirinioko populazioaren %50etik goiti.

Espezieak Nafarroan hartzen duen azalera 21.188 Ha. jotzen da, guztira. Balizko eremu honetan espezieak duen banaketa oso desberdina da eta hiru populazio nagusi ditu: Kintoa-Orreaga (15-18 bikote), Irati-Aezkoa (35-45 bikote) eta Larra-Aztaparreta (8-12 bikote).

3.- Zer jardunbide garatu asmo du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hura berreskuratzeko behar diren jarduketak abian jarri arte? Zer jarduketalditan dago gaurregun espezie horren berreskurapen plana?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak badu okil gibelbarra berreskuratzeko plana ahalik eta lasterren



onesteko asmoa, jendaurrean jarri eta Nafarroako Ingurugiroaren Kontseiluak oneritzia eman ondoren. Berreskuratze-planaren lehen zirriborroa eginda dago, Okil ertaina berreskurtzeko behin-behineko plana idatzita dago jada, "Nafarroako okil gibelbarra berreskurtzeko planarendako demografia faktoreen azterketa eta oinarriko dokumentazioa" izeneko azterlanean (Fernández, 1995).

4.- Zein da espezie horren berreskurapen planaren prestakuntzarekin lortu nahi den azkeneko helburua, galtzorian egoteko faktoreak zuzentzeko?

Berreskuratze-planaren zirriborroak lehen atalean ezarri ditu xedea eta hurrengo helburu operatiboak:

Nafarroako okil gibelbarra berreskurtzeko planaren helburua da espeziearen egungo populazioa eta balizko habitata kontserbatu eta gehitzea, gure eskualdean, epe luzeko bideragarritasun genetiko eta demografikoa bermatuko duen ale-kopurua eta banatze-eremua iritsi arte, Pirinio gainerako populazioarekin lotzea bideratuz.

5.- Zehaztu da espezie horren berreskurapen planerako aplikazio eremua? Zer baldintzatan? Lurralde eremu hori babes araubideren baten menpe dago?

Berreskuratze-planaren proiektuaren arabera, aplikazio eremua hauxe da: egungo edo arestiko zehaztasun ekologikoak direla eta, Nafarroan okil ertainen populazioa hartzen duen edo etorkizun hurbilean har dezakeen eskualdea.

Berreskuratze-planaren zirriborroak 3 atalean definitu du planaren aplikazio eremua, azken urtetan egindako azterlanen arabera. Zirriborroaren arabera, okil gibelbarren balizko banaketa edo aplikazio eremutzat hartzen da egungo edo iraganeko zehaztasun ekologikoengatik, Nafarroan okil gibelbarren populazioak hartzen dituen edo oraintsu arte hartu izan dituen eskualdea.

Egun Nafarroan okil gibelbarren populazio egonkorak dituzten mendiak sartuko lirateke aplikazio eremu horretan, populazio-gune egonkorren eta hedatze-eremuen artean korridore gisa erabil daitezkeenak ere, baldin eta habitata hobetuz, etorkizunean espezieak erabil ditzan bereonera badaitezke. Nafarroan omen diren 60-80 bikote okil gibelbarren %12a (7-10 bikote) baino ez litzateke izango babesguneetan (6/1987 Foru Legea), babes-araubideak oihan-kudeaketari eragiten diola, zaintza bermatuz. Planaren egungo prestakuntzak proposatzen duen aplikatuz gero,

populazioaren %44 inguru (29-33 bikote) sartuko litzateke oihan babesguneetan; planaren aplikazio eremuaren baitan sartzen den gainerako %52ak, aldiz, egun espezieak okupatzen dituen gainerako mendietan burutuko den oihan kudeaketa egokiaren onurak jasoko litzuzke.

6.- Zer eremu kritiko, lehentasunezko jarduketakoak eta banaketa potentzialekoak daude aztergai edo aztertzeke, espeziea "in situ" berreskurtzeari ekiteko? Eskatzen dira haietariko bakoitzaren izena, herria eta izan lezakeen azalera.

Hurrengo lehentasuneko interesguneetat ezarri ditu berreskuratze-planaren zirriborroak banaketa potentzialeko eremuan: 1.) Babesgune deklaratu diren hurrengoak: Bertizko Parke Naturala; Odiako Lekune Naturala (LN-1); Mendilatz eta Larrako natur erreserbak (NE-6) eta (NE-12), hurrenez hurren; Lizardoia eta Aztaparretako erreserba integralak, (EI-1) eta (EI-3), hurrenez hurren. 2) Banaketa potentzialeko eremuaren barruan, etorkizunean intereseko oihantzat jotzen diren babesguneak. Eta 3) Mendi Erregelamenduko 41.1 artikulua garatuz, planaren aplikazio eremuan diren onura publikoko mendi eta mendi babestailetan ezartzen diren oihan-erreserbak.

Azterlanaren eraskin baten jarri dira oihan erreserba izaten jarraitu beharko luketen oihan zatiak, Mendi Erregelamenduko 41. artikuluekin bat (13/1990 Foru Dekretua). Guztira, 879,7 ha. babestea proposatu da, Mendi Erregelamendua garatuz. Egun, babesgune deklaraturik, espezieak okupatzen dituen gehitu behar zaizkie eta Nafarroako okil gibelbarra berreskurtzeko planaren barruko lehentasunezko eremuaren gunea osatuko lukete.

7.- Espezie horren berreskurapen planean, espeziearen beraren ezaugarrien ondorioz, zer xede eta jarduera beharko lirateke kontuan hartu nahitaez, zaintzeko, eremu kritikoak bermatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko?

Okil gibelbarra berreskurtzeko planaren zirriborroak lau jarduketa-mota ezarri ditu, beste horrenbeste helburu zehatzei lotuta. Laburbilduz:

1. helburua: Oihan habitata eta hostozabalen basoen abegikortasuna hobetzea, planaren aplikazio eremuaren baitan.

Nafarroako Gobernuo Natura Zaintzeko Zerbitzuarekin bat etorriz, oihanzaintzari buruzko oinarriko neurriak ezarriko dira, berreskuratze-planaren eremuan sartzen diren pagadi eta pagadi-izeidietako oihan-habitata hobetzeko asmoz.

Aurrekoarekin batera, egungo Mendi Erregelamenduak (59/1992 Foru Dekretua) bere 41.1. artikuluan ezarri oihan erreserbak zedarrituko dira, planaren eremuan sartzen diren onura publikoko mendietan eta mendi babestailetan.

Okil gibelnabarrarendako habitat egokia ez duten lehentasunezko interesguneetan, zaintza neurri aktiboak erabiliko dira, hala nola zuhaitzei gerrikoa egin eta zuhildu, okil gibelnabarrak elikatze eta habia egiteko behar dituen mikrohabitatakat sortzeko.

2. helburua: Nafarroako espezieari eta bere habitatari buruzko ezagupenak handitzea, zaintzeko neurriak hobeto definitu eta aplikatzeko asmoz.

Okil gibelnabarraren biologia eta etologiari, haren eskualde-banaketari, tokian-tokiko ale kopuruari eta gure eskualdeko habitataren aukatzeari buruzko ezagupenak hobetzeko azterlanak bultzatuko dira, habiak egiteko beste alde batzuk antzeman, planaren aplikazio eremua zabaldu eta egoki irizitako zaintza-neurri osagarriak sustatzeko.

3. Helburua: Espeziaren arazoa zein den jakinarazi eta Nafarroako okil gibelnabarraren egoera eta babes-beharrarenganako sentikortasuna gehitzea gizarte-talde ezberdinetan.

Guztiendako zabalkunde kanpaina orokorrak sustatuko dira eta zabalkunde-liburuska argitaratu.

Aurrekoa osatzeko, okil gibelnabarrari buruzko modulu bereziak jarriko dira, planaren aplikazio eremutik gertu dauden Nafarroako Gobernuaren menpeko Naturaren Interpretazio Zentroetan.

Era berean, hezkuntza-kanpainak egingo dira ikastetxeetan, espeziea hobeto ezagutzeko eta haur eta gazteak sentikortzeko Nafarroako okil gibelnabarra zaintzeari buruzkoan.

Azkenik, berreskuratze planaren existentzia eta edukiaren gaineko zuzeneko informazioa emango zaie toki entitate ukituei, Ingurugiro Zuzendaritzako zaindari eta teknikariei eta oihan teknikariei, eta Natura Zaintzeko Zerbitzuko landalangleiei.

4. Helburua: Berreskuratze planaren baitan erabili diren neurrien eraginkortasunaren jarraipena egitea.

Aldian-aldian ebaluatuko da planak aurreikusitako helburuak betetzen ote diren. Plana indarrean sartu aurretik zeuden datuekin alderatuko dira emaitzak.

8.- Nekazaritzari, ehizari, kirolari eta jokuei edo aisialdiari dagokienez, zer murrizketa ezarri beharko lirateke jarduera horien garapena espezie hori eta haren habitatak zaintzeko baldintzekin bat letorren?

Espeziearen nolakotasun ekologiko eta etologikoak kontutan hartuz gero, berreskuratze-planaren zirriborroak aurreikusten dituen eremu kritikotako erabilera-murrizketak oihanzaintza eta ustiakuntzazkoak besterik ez dira. Beraz, okil gibelnabarrak denaz bezainbatean, ez da murrizketarik ezarri behar, are, ez da komeni, nekazaritzari, ehizari, kirolari eta jokuei edo aisialdiari dagokienez, normalean ez baitute espeziea zer-tan ukitu.

Oihangintza-murrizketei buruzkoan, gomendagarriena da eremu kritikotako Mendi Erregelamenduak (13/1990 Foru Dekretua) aurreikusten dituen oihan-erreserben barruan sartzea, oraindik garatzeke badaude ere. Habitata hobetzeko neurririk eraginkorrenak egun babesgune deklaraturik daudenetarako gordeko lirateke, baldintza ekologikotako espezieak irauteko egokiak ez badira.

9. Beharrezkoa da edo aurreikusten da espezie horren birkolonizazioa espeziea har lezaketen bestelako habitatetan? Zenbat ale beharko lirateke sartu, ustez?

Oraingoz ez da beharrezkotzat jotzen Nafarroako okil gibelnabarraren populazioa artifizialki indartzea (ezin da birsartu aipatu espeziea eremu batean galdu ez denean). Aitzitik, berreskuratze-planak diotenaren arabera, egungo populazioa nahikoa da espeziea banaketa potentzialeko eremu osoan zabaltzeko gune bezala.

10.- Berreskurapen planaren garapena espezie hori bizi dela dakigun ondoko Komunitateera zabaltzen da edo horiek ukitzen ditu? Zer kontsulta eta koordinazio tresna ezarri asmo dira haiekin Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentutik? Eta Estatuko erakundeekin?

Okil gibelnabarraren Espainiako populazioaren %95etik goiti hartzen du Nafarroak, esanda dago. Oskako Anso aranean baino ez dago auzoko populaziorik, txikia gainera, Aranetako Erreserba Nazionalaren barruan. Berreskuratze-planaren proiektuak aurreikusitakoaren arabera, hurrengo bidaliko zaie planaren kopia: Ingurugiro Ministerioari, Aragoiko Gobernuari eta Frantziako Pirinio Atlantikoetako Departamentuari, egoki irizitako neurri osagarriak hartu eta okil gibelnabarra Pirinio guztian babestu eta zaintzeko eskualdez gaindik hitzarmenak egiteko aukera azter dezaten.

Okil gibelnabarrak Pirinioan duen populazioa eta egungo banaketa kontutan harturik, Nafarroari dagokio bereziki hura zaintzeko nazioarteko ardurara eta ezin du auzoko beste komunitateen esku utzi. Horrek ez du esan nahi, berreskuratzeko plana abiatuz gero, Ingurugiro Ministerioak edota Europako Batasuneko LIFE fondoek jarduketa batzuk, zati batean bederen, finantzatu ez dituztenik.

11.- Espezie horren berreskurapen planak izan dezake finantzaketarik beste edozein entitate publiko edo pribatutatik, bai gure Komunitatean, bai kanpoan?

Nafarroako okil gibelnabarra berreskuratzeko planak ez du finantzaketa publiko edo pribaturik, oraingoz behintzat. Nafarroako Gobernuarenaz besteko finantzabide garrantzitsuena Europako Batasuneko LIFE fondoena izan daiteke. Hala ere, Europako Batasunak espeziea nola balortzen duen ikusita (ez baitu kontutan hartzen populazioaren isolamendua eta subspeziea endemikoa dela), finantzaketa hori zalantzatan jar daiteke okil gibelnabarraren kasuan.

12.- Ba ote dauka Nafarroako Gobernuak behin-behineko edo behin betiko egutegirik berreskurapen plana aztertu, prestatu, argitaratu eta abian jartzeko?

Aurretik behar ziren azterlanak egin eta berreskuratzeko-planaren lehen zirriborroa idatzi ondoren, oraindik ez dago aipatu plana onartu eta abiarazteko behin betiko egutegirik.

13.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak berreskurapen planak inola ukitzen dituen toki entitateekin alde aurretik harremanik edo kontsultarik izateko? Eta espezie horren berreskurapen planak ukituriko elkargo, federazio eta beste-lako taldeekin?

Planaren aplikazio-eremua behin betikoz finkatu eta gero, lurraldea eremu horren barruan duten toki entitateei jakinaraziko zaie eta audientzia emango. Gainerako entitateek, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aholkularitza organoen bitartez har dezakete parte, edo bestela, azken finean, jendaurreko erakusketan.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 18an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## **Foru Administrazioaren Itoizko urtegiarekiko eta Nafarroako ubidearekiko jarduketak koordinatzeari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Foru Administrazioaren Itoizko urtegiarekiko eta Nafarroako ubidearekiko jarduketak koordinatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 7ko 8 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko

galdera egin du, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak Administrazioaren Itoizko urtegiarekiko eta Nafarroako ubidearekiko jarduketan koordinazioa bereganatzeari buruz egin duen galdera dela eta, ondorengo erantzun hau jakinarazi nahi du Nafarroako Gobernuko Lehendakariak:

1.- 1995eko azaroaren 20ean erabaki zuen Nafarroako Gobernuak Itoizko urtegia eta hark ureztatze alderi buruzko Koordinazio Batzordea sortzea, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria buru duelarik. Kideak, berriz, aipatu Departamentuko eta Herri-lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Herrien Sustapenerako Departamentuko hainbat zuzendari nagusi, Lehendakariak Departamentuko Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaria eta “NILSA, S.A.” eta “Riegos de Navarra, S.A.”ko kudeatzaileak. Idazkari gisa aritzen zena, Ingurugiro, Lurraldearen

Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Laguntza Juridiko eta Administratiboaren Zuzendaria.

Aipatu batzordeak bere zeregin dituen Estatuaren eta Foru Administrazioaren arteko beharrezko jarduketak koordinatzea eta Gobernuari proposatzea, besteak beste, bere gain hartu ditu galderan agertzen diren jarduketak burutzea.

2.- Bigarren puntuaz, berriz, gauza jakina da galdera luzatu den gaiari buruzko eskumenak diziplinartekoak edo departamentuarteak direla, eskumenak, *ratione materiae*, Departamentuetako zuzendaritza nagusiei dagozkiela kaltetan gabe, eta, hala bada, goian aipaturiko sozietate publikoen bitartez, tresna gisa. Zehaztuz:

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua

– Ingurugiro Zuzendaritza Nagusia

– Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza Nagusia

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Zuzendaritza Nagusia.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua

– Herrilan Zuzendaritza Nagusia.

NILSA, S.A.

Riegos de Navarra, S.A.

3.- Lege prozedurei eta obren hainbat aldien epeak jarraitzei buruzkoan bi administrazioen artean (Nafarroa-Estatua) burutu behar dituzten jarduketak zailtasun handikoak direnez, egoki da Lehendakariak aintzindaritza izatea jaun horrek galdetzen duen gaiaren inguruko lege-, ekonomi-

eta informazio-alderdi batzuetan, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzei buruzko apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legeko 24 a) artikulua Lehendakariari ematen baitio Departamentuak koordinatzeko zeregina.

4.- Hartutako zereginen ekar ditzaketen jarduketak zehaztuz: Nafarroako Administrazioaren eta Estatuaren arteko lege-prozedurak koordinatzea, Estatuak Nafarroako ubidearen ingurugiro eraginarean aitorpenerako burutu behar dituen jarduketak jarraipena, eta baita Nafarroako ubideko obren kontratazioari buruzko hainbat alderdi.

5.- Lehendakariak jarduketa jakin batzuen aintzindaritza eta koordinazioa egiteko hartu duen konpromezu politikoak ez du esan nahi Departamentuei emandako eskumenak bereganatuko dituenik.

6.- Zeregin horien ondorioz, halaber, ez da egi-tura-aldaketarik izango koordinazioak ukituriko Departamentuetan.

7.- Goian aipaturiko koordinazio batzordeko kideen eta Lehendakariaren kabineteko kideen laguntzarekin ekingo zaie zereginari.

8.- Egun direnez bestelako antolamendu-egiturak sendotzeko xedapen edo erabakirik emateko asmorik ez dago, oraingoz behintzat.

9.- Koordinazioaren beharra etorri da, besteak beste, koordinazio batzordeko kideen esperientzia eta proposamenetatik, eta gaiaren inguruan Estatuan eta Nafarroan ardura dutenek burututako jarduketetatik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoa betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 20an

Nafarroako Gobernuko Lehendakaria: Miguel Sanz Sesma

## Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari dagokion “kreditu erreserba”ri buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari dagokion “kreditu erreserba”ri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 17ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 26a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari dagokion “kreditu erreserba”ri buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna.

1.- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari buruzko datua zuzena den.

Nafarroako Gobernuak, 1997ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen Herrilan, Garraio

eta Komunikazio Departamentuak 1.650 milioi pezetako kreditu erreserba egingo zuela.

2.- Zer kontusailetan eta zenbat aurrekontu-lerrotan eginen den “erreserba” hori eta zenbat dirutan lerro bakoitzean (bat baino gehiago ukitzen badu).

Ezinezko da kreditu erreserbak zer kontuasail eta lerro ukitzen duen jakitea, oraingoz, aurrekontuaren betetzearen bilakaeraren menpen izango delako, jakina.

3.- Zer eragin izan dezakeen Departamentuari dagokion “kreditu erreserba” horrek aurtengo urte honetako lehen sei hilabeteetan, lanaren plangintzari eta egin beharreko gastu edo inbertsioari dagokionez.

Aurrekontuaren betetzean kontu handiagoz ibiltzea ekarriko du, noski. Aurreko puntuan aipatu diren arrazoiengatik, baina, ezin zehaztu zer jarduketari eragingo dion.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoaren babespean.

Iruñean, 1997ko otsailaren 19a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

## Lurzati kontzentrazioko eskualdeetan “Ustiategiaren oinarrizko azalera”k izenekoak ezartzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Lurzati kontzentrazioko eskualdeetan “Ustiategiaren oinarrizko azalera”k izenekoak ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoaren arabera. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna.

1. Ustiategiaren oinarrizko azalera finkatu diren lurzati kontzentrazioko eskualdeen zerrenda eraskinean ageri da.



2.- Ustiategiaren oinarritzko azalerak kalkulatzeko erabili diren irizpideak.

Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko Legeko III. Tituluko 8.1 artikulauarekin bat, Nekazaritza Egituren Zerbitzuak finkatu egin ditu ustiategiaren oinarritzko azalerak. Hori egiteko, ustiategiaren oinarritzko azalerak eratu behar izan ziren, Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko Legeak 1996ko abenduaren 22an indarra hartu baino lehen lurzati kontzentrazio dekretua zuten eskualdeetan. Era berean, egun horretatik aitzina eman den lurzati kontzentrazio dekretu bakoitzak sartu ditu ustiategiaren oinarritzko azalerak definitzeko puntu egokiak. Eskualdeak sekain edo ureztaluz izan ohi diren arren, perimetroaren baitan sekaineko lurrak edo ureztalurrak gera daitzkeenez, eskualdeko gainerako lurrez bestelakoak, sekain lurrari eta ureztatzeko lurri dagozkion oinarritzko unitateak sartu dira hainbat dekretutan, baita dagozkion bihurtze-indizeak ere. Horrekin aurre egiten zaio laguntzak aplikatzera, ustiategiaren neurria aztertze orduan, sekain lur eta ureztatzeko lurri arteko bihurtze-indizea ez jakiteko hutsuneari. Laguntzak emateko espedienteak egiteko esperientziak erakusten duenez, sekain eremu edo eskualde batetan ureztatzeko lurri oinarritzko unitateak eta bihurtze-indizeak argitaratzearen balioa testimoniala besterik ez da.

Ustiategiaren oinarritzko azalerak finkatzeko irizpide nagusia koherentzia geografikoarena izan da, hurbil zeuden eskualdeen artean bidegabeke-riarik ez gertatzeko. Irizpide hori, III. Tituluko 8.1

artikulauak zioenarekin uztartu behar zen, alegia, bideragarri izateko azalera nahikoa duten nekazaritza ustiategiak eratzearekin. Azken helburu hori betetzeko eta Kontseiluak uztailaren 15ean emandako EEE 2328/91 Erregelamenduak, nekazaritza egituren eraginkortasuna hobetzeari buruzkoak, bere 29. artikuluan, eta abenduaren 30eko 1887/1991 Errege Dekretuak, nekazaritza egiturak hobetzeari buruzkoak, ziotena betez, "erreferentziako errenta" hartu zen oinarritzko parametrotzat, nekazaritza ustiategiaren bideragarritasuna definitzeko. Oinarritzko unitateak eratzeko asmoz egindako azterlanetan, 1995erako ezarritako 2.568.456 pezetako erreferentziako errenta erabili zen, hasieran. Gutxienezko muga ezartzeko, Nekazaritza Azpiegituren Batzorde Teknikoak jo zuen erreferentziako errentaren %50aren balioidea zen azalerari zegokiola. Gehienezko muga ezartzeko, erreferentziako errentaren %120aren balioidea behar zuen azalerak.

Erreferentziako errenta hori jotzen zuten azalera finkatzeko, gainera, ustiategiaren batez-besteko zehaztasunak definitu behar ziren, ITGeetan ziren datuak eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elidakura Departamentuko Idazkaritza Teknikoak landutakoak erabiliz. Halaxe egin zuten Miranda de Arga eta Leotzeko inguruetarako, eta erreferentziako errentaren %50 eta %120 errenta zuten ustiategiaren zehaztasunak finkatu ziren. "ITG Agrícola" delakoak proposatutako emaitzetan oinarrituz, sekain lurri eta ureztatzeko lurri zegozkien azalera finkatu ziren. Hona nola geratu ziren Miranda de Arga, Leotz eta Lizoainbarreko inguruetarako:

Eskualdea	Sekain lurretako mugak		Ureztatzeko lurri mugak		Bihurtzeko indizea	Bihurtzeko indizea
	Gehienez	Gutxienez	Gehienez	Gutxienez	Gehiena	Gutxiena
Miranda de Arga	123	50	26	4,0	4,73	12,50
Leotz	82	36	23	3,5	3,57	10,29
Lizoain	50	25	23	3,5	2,17	7,14

Kokapen geografikoa, eta beraz klimatologia, oso ezberdina zuten hiru eskualdeetarako ustiategiaren oinarritzko azalera izanik, interpolazioz egin ahal izan dira gainera eskualdeetako ustiategiaren oinarritzko azalera, halako moldez non dekretu berria egiteko unitateak behar direnean informazio horretara jotzen den. Oinarritzko unitateak irizpide beraren arabera egitea lortzen da horrela, teknikari ezberdinek irizpide ezberdinak aplikatuz sortuko litzatekeen nahibezalakotasuna saihestuz.

Aurreko koadroak zituak lantzeko bokazioa zuten sekain lurri zegozkien, funtsean. Abeltzaintza eskualdeetarako oinarritzko unitateak ere beharrezkoak ziren. Horregatik pareko eskualdeetarako eredu izan zitezkeen eremuak aukeratu ziren, Ultzama ibarra eta Erroibarra, abeltzaintza intentsiboaren eredu, lehena, esne-behiekin; bigarrena, ordea, ez hain intentsiboa, baina esne-behiekin ere.

Hektareako marjina gordina eta abelburuko hektarea kopurua ezagututa, Nekazaritza, Abel-

tzaintza eta Elikadura Departamentuko Idazkaritza Teknikoaren argitalpenen bitartez, bi

eskualdeotako oinarrizko unitateak ezarri ziren. Horra:

Eskualdea	Sekain lurretako mugak		Ureztatzeko lurren mugak		Bihurtzeko indizea	Bihurtzeko indizea
	Gehienez	Gutxienez	Gehienez	Gutxienez	Gehiena	Gutxiena
Ultzama ibarra	23	8	14	3,5	1,64	2,29
Erroibar	30	10	14	3,5	2,14	2,86

Nafarroako bost puntu ezagunetako ustiategiaren oinarrizko unitateak ezartzeak ekarri du ondoren eman diren lurzati kontzentrazioari buruzko dekretuetan ustiategiaren oinarrizko unitateak interpolazio arrazoituz ateratzea, eta, esparru bakarra izanik bidegabekeriak saihestea.

3.- Aurreko puntuan esan bezala, aipatu bost eredu-eskualdetako oinarrizko unitateak finkatzeko, Europako Batasuneko arauak zein Espainiakoe defintitutako erreferentziako errentaren %50 eta %120 hartu dira kontutan muturreko baliozat.

4.- Kasu guztietan hartu da irizpide amankomuntzat erreferentziako errentaren %50 eta %120ko errenta iristea, gehienekoei eta gutxienekei eusten dieten ustiategiaren intentsitatea tekniki finkatzeko orduan ahalik eta objektiboan jokatu. Irizpide berberak erabili dira sekain lurretarako zein ureztatzeko lurretarako, eta parametroak aldatu beharra izan da, sekain edo ureztatzeko lur izan. Eredue-skualde bakoitzaren oinarrizko unitateak atera ondoren, irizpide bakarrari eutsi zaio eskualde bakoitzeko oinarrizko unitateak arrazoituzko interpolazioz kalkulatzeko.

5.- Eskualde bateko lurzati kontzentrazioa egitea interes publikotzat aldarrikatzea onetsi aurretik, bideragarritasun azterketa egiten da lurzatiaren dispersioa nolakoa den ikusi eta lurzati kontzentrazioetik aterako diren aurreikuspenak ikertzeko. Azterlan horretan sartzen da gutxienekeo lantze unitatera iristen ez diren ustiategi edo jabeen egoera.

6.- Eskualdearen hasierako egiturak ez du inongo zerikusirik ustiategiaren oinarrizko unitate finkatzeko garaian, oinarrizko irizpidea erreferentziako errentaren %50 edo %120 iristea baita.

7.- Kontutan hartu da eskualdearen ekoizpenaren noranzkoa, eredu-eskualdeak taldeka banatu baitira, nekazaritza edo abeltzaintzarako joeraren arabera. Nekazaritzarako joera zuten eskualdeetan, eskualde bakoitzeko ustiategi berezien labore eta nolakotasunak hartu dira kontutan. Abeltzaintza nagusi zen eskualdeetan, berriz, ustiakuntza-

ren intentsitatea handiagoa edo txikiagoa izatea hartu da aintzat.

8.- Hainbat ikuspuntu erabili behar dira nekazaritza azpiegituren erreformari buruzko Lege berriaren aplikazioaren ondorioak aztertzeko:

8.1.- Ureztatzeko lurren finantzaketa berriak, batez ere parekatzeko laguntzei dagokienean, lurzati kontzentrazio eskariak gehitzea ekarri du ohiko ureztatzeko lurretan, prozesu guztian parte hartzen dutenen jarrera ere hobetu delarik. Badira lurzati ezartzeko laguntzak aplikatzeko arazoak ureztatzeko oinarrizko unitatea osatzeko nekazari batek baino gehiagok esku hartu behar duenean, laborantza iraunkor eta landuetan.

8.2. 1996ko azaroaren 28ko Foru Agindua, ustiategiaren oinarrizko unitateak ezartzeko laguntzak aplikatzeko arautegia garatzeari buruzkoa, argitaratu zenetik, ugalduegin da laguntza-eskariaren kopurua.

1996ko abenduaren 31ra arte hiru eskari zegoen dokumentazio guztiarekin. Onartu egin dira, laguntzak ordaindu eta Ondare Eskualdatzeen gaineko Zerga ordaintzetik jare daudelako ziurtagarria emateari ekin zaio. Beste hamar eskari dago egun, horietariko batzuk dokumentazioa osorik dutela eta beste batzuk, osatzeko bidean.

Goian esandakotik atera daiteke badagoela halako esperientzia bat ustiategiaren oinarrizko unitateen eraketaren eta ezarritako laguntzen ondorioak aztertzeko.

8.2.1. Ustiategiaren oinarrizko unitateen kalkuluan erreferentziako errentaren %50 eta %120 erabiltzearen ondorioz azalera handi samarrak ateratzen dira, gutxienekeo muga aintzat hartuz gero, bai sekain lurrerako bai ureztatzeko lurrerako. Zailtasuna dago errentamenduak kontratu bidez egiteko, 17 urte inguruko eperako, orain arte ez baitago errentamendurako laguntzen eskaririk, eta errentamenduan eman diren lur bakarrak gutxienekeo mugara iristeko izan dira, hurbileko ahaide artean beti, eta horrelakoetan ere, nekez.

8.3. Lurzati kontzentrazioa dela eta, labore iraunkorrak ateratzeak dakarren errenta-galera ordaintzeko, hiru urtez ematen diren laguntzek mesede egin diote lurzati kontzentrazio prozesuari.

9.- Aurreko guztitik ateratzen da nekazaritza azpiegituren legearen erreformari buruzko Lege berriaren ekarpenik handienak izan direla ureztatzeko lurren finantzaketa, ustiategiaren oinarriko unitateak eratzeko laguntzak, eta baita labore

iraunkorrak birjartzeko laguntzak ere. Legeak ekarriko dituen benetako onurak etorkizuneko ureztatzeko eskualdeen eraldaketari ekiten zaionean gauzatuko dira, Legeko artikuluek ezarritakoak bide ematen duelako ureztatzeko azalera-unitate errentagarriak eratu eta lurzati-instalazioko kostua arrazoizko egiteko.

Iruñean, 1997ko otsailaren 20a

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro.



**Ustategiaren oinarrizko unitateak dituzten  
lurzati kontzentrazioako eskualdeen zerrenda**

Eskualdea	Dekretuaren eguna	Ha.k	Jabeak	Lursailak	Sekain lurreko mugak		Ureztatzeko mugen lurrak		Bihurtze indizea
					Gehienekoa	Gutxienekoa	Gehienekoa	Gutxienekoa	
Caparroso	1995-09-04	1.223,0	584	3.411			17,5	5	
Azkojena-Marcilla	1995-09-04	510,4	133	421			17,5	5	
Santacara-Mélida	1995-09-04	338,0	217	1324			17,5	5	
Traibuenas	1995-09-04	312,7	152	746			17,5	5	
Miranda de Arga	1995-10-25	5.195,3	479	2.205	123	50	26,0	4	4,73
Azpirotz	1995-10-25	145,0	33	572	23	8	14,0	3,5	1,64
Usetxi	1995-10-25	137,0	5	82	30	10	14,0	3,5	2,14
Lintzoain	1995-10-25	236,0	26	283	30	10	14,0	3,5	2,14
Gares	1995-10-25	1.355,0	405	1.874	82	36	23,0	3,5	3,57
Beruete	1995-10-25	894,0	64	930	23	8	14,0	3,5	1,64
Lezaeta	1995-10-25	50,0	20	66	23	8	14,0	3,5	1,64
Itsaso	1995-10-25	500,0	18	296	23	8	14,0	3,5	1,64
Arrarats	1995-10-25	941,8	16	262	23	8	14,0	3,5	1,64
Alli	1995-10-25	102,0	15	287	23	8	14,0	3,5	1,64
Azketa Iguzkitza	1995-10-25	1.015,0	184	1.351	61	30	23,0	3,5	2,65
Falces	1995-10-25	9.295,0	432	3.405	132	53	26,0	4	5,08
Urantzia	1995-10-25	5.045,0	647	3.511	82	36	23,0	3,5	3,57
Cárcar	1995-10-25	3.165,0	519	2.474	132	53	26,0	4	5,08
Deikaztelu	1995-10-25	2.765,5	649	2.856	82	36	23,0	3,5	3,57
Imarkoain	1995-10-25	385,0	21	356	50	25	23,0	3,5	2,17
Janaritz	1995-10-25	262,6	6	169	50	25	23,0	3,5	2,17
Lizoain II (Muru)	1995-10-25	103,9	13	130	50	25	23,0	3,5	2,17
Ozkaritz	1995-10-25	294,8	15	224	50	25	23,0	3,5	2,17
Urritzelki	1995-10-25	278,9	5	146	50	25	23,0	3,5	2,17
Zalba	1995-10-25	288,9	14	131	50	25	23,0	3,5	2,17

Eskualdea	Dekretuaren eguna	Ha.k	Jabeak	Lursailak	Sekain lurreko mugak		Ureztatzeko mугen lurrak		Bihurtze indizea	Bihurtze indizea
					Gehienekoa	Gutxienekoa	Gehienekoa	Gutxienekoa		
Lakar	1995-10-09	322,0	72	438	61	30	23,0	3,5	2,65	8,57
Errazkin	1995-10-09	585,5	40	626	23	8	14,0	3,5	1,64	2,29
Naxurieta II	1995-10-09	150,0	17	215	50	25	23,0	3,5	2,17	7,14
Lezaun	1995-10-09	1.892,0	80	383	30	10	14,0	3,5	2,14	2,86
Leatxe	1995-10-09	1.418,0	58	1.146	82	36	23,0	3,5	3,57	10,29
Mendiorotz II	1995-10-13	244,7	12	132	50	25	23,0	3,5	2,17	7,14
Ribaforada	1995-10-13	654,0	361,0	906	150	60	26,0	4,0	5,77	15
Andosilla II	1995-10-23	5.100,0	1.057	7.094	132	53	26,0	4,0	5,08	13,25
Murillo el Fruto	1995-12-04	835,0	444	993	123	50	26,0	4,0	4,73	12,50
Latasa (Imotz)	1995-12-04	71,50	19	211	23	8	14,0	3,5	1,64	2,29
Abartzuza	1995-10-23	30,5	112	268			23,0	3,5		
Gazteluberri	1995-10-23	2.621,0	39	983	82	36	23,0	3,5	3,57	10,29
Murillo el Fruto	1995-12-04	692,0	346	1.344	123	50	26,0	4,0	4,73	12,50
Arguedas	1995-12-11	1.070,0	705	3.097	150	60	26,0	4,0	5,77	15
Beintza-Labaien	1996-01-22	470,0	115	1.190	23	8	14,0	3,5	1,64	2,29
Bizkarreta-Gerend	1996-01-15	270,0	58	276	30	10	14,0	3,5	2,14	2,86
Arbeitza	1996-08-27	401,0	80	548	61	30	23,0	3,5	2,65	8,57
Eusa	1996-02-05	168,9	63	332	50	25	23,0	3,5	2,17	7,14
La Esperanza (Car	1996-02-19	421,7	228	1.390	123	50	26,0	4,0	4,73	12,50
Etaiu II	1996-03-11	233,0	50	408	60	30	23,0	3,5	2,65	8,57
Bargota II	1996-04-15	2.237,0	433	3.584	82	36	23,0	3,5	3,57	10,29
Errea	1996-05-13	425,0	7	254	30	10	14,0	3,5	2,14	2,86
Igoa	1996-06-24	220,0	20	160	23	8	14,0	3,5	1,64	2,29
Ihaben	1996-10-28	142,0	17	162	23	8	14,0	3,5	1,64	2,29
Erro	1996-10-28	508,0	53	646	30	10	14,0	3,5	2,14	2,86

## Husketen kalitatea hobetzeko laguntzak emateari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak husketen kalitatea hobetzeko laguntzak emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 27a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kide den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, husketen kalitatea hobetzeko laguntzak emateari buruz. Hona Toki Administrazio Kontseilariaren erantzuna.

1.- Laguntza horiek finantzatzen dituen aurrekontu-lerroari dagokionez, eskatzen da: atxikiak dauden lerroaren zenbakia, kontusailaren izena, programa eta proiektua, haien sailkapen organiko, ekonomiko eta funtzionala, eta lerroak orokorrean eskura eduki duen kreditua.

Toki Administrazio Kontseilariak ekainaren 3an emandako 83/96 Foru Aginduak onartu zituen aplikatzeko arauak. Horien arabera, NILSAk egin zuen deialdia, zeinaren Administrazio Kontseiluak, 1996ko otsailaren 6an eginiko bilkuran, onetsi zuen Nafarroako ibaien saneamendurako Plan Zuzentzaileko 1996rako jarduketara programa eta 125 milioi kontsignatu zituen, entitate pribatuaren inbertsioei laguntza emateko, NILSAren aurrekontuaren kontura, aipatu Foru Aginduak dioen bezala, eta ez Gobernuaren kostu-kontusailen kargura.

2.- Aurreko atalean aipatu den kreditu eskuragarritik zenbat diru erabili den husketen kalitatea hobetzeko.

Parlamentari berak, 1996ko abenduaren 4an, ibaiak araztu eta saneatzeari buruzko Plan Zuzentzailea betetzearen gainean egin zuen galderaren inguruko txostenean agertu ziren egindako eskarriak, eta beranduago sartu direnak erantsi zaizkio orain, eransten den 1. koadroak erakusten duen bezala.

Ageri denez, dirulaguntzetarako erabili den kopurua (62.984.969 pta.) kontsignatu zen

kopurua baino askoz txikiagoa da (125.000.000 pta.).

3.- Goranzko aldaketak, bai Foru Aginduak eta Ebazpenak argitaraturik, bai aurrekontutik kanpoko diru-ekarpenen edo finantzaketaren bidez gauzatuak, 1996ko ekitaldian eskura egon den zenbatekoa egin arte.

Ez da kontsignaturiko kopurua aldatzeko beharrik izan.

4.- 1996ko aurrekontuan guztira eskura zegoen zenbatekoaren sailkapena, kreditu eskuragarria edo 1995ean konprometituriko kreditua den aldetik.

Erantsi den 2. koadroan zehazten dira 1995eko laguntza-deialdira aurkeztu diren eskarriak. 1996ko abenduaren 31n, 11.774.395 pta. ordaindu da eta 26.155.480 pta. dago ordaintzeke. Instalazioa egin ondoren ordaintzen da, ondo dabilela egiaztatu ondoren.

5.- Husketen kalitatea hobetzeko emaniko dirulaguntzen zerrenda. Esan bedi: noiz eskatu zen, zer enpresa, entitate edo erakundek eskatu zuen, dirulaguntzen xede izan diren jarduketaren deskripzio laburra, eta haien zenbatekoa.

Lehen aipatu dugun 1. koadroan jaso dira emandako dirulaguntzak, eskaturiko informazioarekin batera.

6.- 1997 eta 1998 urteetarako harturiko gastu-konpromezua gaurregun bideraturik dauden edo aurreko urteetan bideratu diren espedienteekiko.

1996ean eta aurreko urteetan eman ziren dirulaguntzak, guztiz burutu gabeak, eta beraz, ordaintzeke, dagokien unean ordainduko dira, eman ziren urtean zegoen kontsignazioaren kontura.

Beraz, ez dago 1997 eta 1998ko kontsignazioei eragingo dien gastu-konpromezurik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoa betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 20a

Toki Administrazio Kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

(Aipatu koadroak Foru Parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

## Tuterako hondakin urak arazteko aurreikuspenei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako hondakin urak arazteko aurreikuspenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 27a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tuterako hondakin urak arazteko aurreikuspenei buruz. Hona Toki Administrazio Kontseilariaren erantzuna.

Galderak hiru zati ditu:

1.- Tuteran aurreikusiriko epean jarduteko asmoak aldaketarik izan du? Erantzuna baiezkoa bada, zer aldaketa izan diren, zergatik eta zer ondorio izan dituzten, bai atzerapenari dagokionez, bai inbertsioari dagokionez.

Nafarroako ibaiak saneatzeko Plan Zuzentzaileak (1995) jaso zituen Tuterako hondakin uren araztea konpontzeko jarduketak. Horra obrak eta zenbatekoak:

– 1995ean. Pradoko pasealekuko hodi biltzailea, 59 milioi pezeta. Hodi biltzaile orokorraren zati bat zen eta Pradoko pasealekuan egindako obren batera burutu zen.

– 1996-1997 urteetan: Tuterako hodi biltzailea, 595 milioi pezeta. Keiles eta Mediavilla ibaien arroetan egiteko hodi biltzailea, eta gainera, hodi biltzaile orokorra, hondakin urak etorkizuneko ur araztegiara eramango dituen, Ebro ibaiko eskumaldean, Tausteko ubideko urtegiaren parean.

– 1998an: Tuterako araztegia, 1.170 milioi pezeta. Hondakin uren araztegi osoa, aurretratatamendu, lehen tratamendu eta tratamendu biologikoarekin, 91/271 Europako Jarraibideak eskatzen duenarekin bat.

1996, 1997 eta 1998an egin beharreko obren finantzaketa hitzartuta dago, 1995eko otsailaren 27an Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateko Toki Adminis-

trazioko Departamentuak izenpetu zuten hitzarmenean, hiri hondakin-urak saneatu eta arazteko Estatuko planaren jarduketei buruzko hartan.

Hitzarmenak erabaki zuen Tuterako obrak “Ebro ibaiaren arko arazketa” izeneko proiektuaren baitan sartzea, Europako Batasuneko Kohesio Fondoak %80 finantzatzeko zuelarik eta gainerako % 20, NILSA enpresa publikoak kudeaturiko saneamendu-kanonaren bidez.

Obrak aurrez ikusitako urteetan burutu ahal izateko, 1996ko otsailean aurkeztu zioten Ekonomi eta Ogasun Ministerioari dagokion espedientea. Aipatu Ministerioak, hauteskunde orokorretarako deia eta hartutako konpromezuak zirela eta, Bruselan espedientea ez tramitatzea erabaki zuen.

Beraz, 1997ko eskaria onartuz gero, urte betez atzeratuko da programa, gutxi gorabehera. Hala ere, ez da kontsignatuko aurrekontuen aldaketarik espero.

2.- Hala bada, nor da edo nortzuk dira aldaketa horien arduradunak?

Ekonomi eta Ogasun Ministerioak ezarri dituen programaren aldaketak, lehen esan bezala, izan ere, Herrilan eta Ingurugiro Ministerioekin batera, Europako Batasunari bidali behar zaizkion proiektuak aukeratzeko ardura duen organoa baita, Kohesio Fondoaren aportazioa jaso dezaten.

3.- Zer mandatu edo jarduketa egin asmo ditu Nafarroako Gobernuak edo egiten ari da Tuterako hondakin uren araztegia abian jartzeko hasierako asmoak atzera ez daitezene?

Hainbat bilera egin dira azken hilabeteotan Ekonomi eta Ogasun eta Ingurugiro ministerioekin, aipatu espedientearen tramitazioa bultzatzeko. Horrekin batera, joan den abenduaren 4an, txostena bidali zitzaion Ekonomi eta Ogasun Ministerioari, beste autonomi elkarte batzuek bidalitako informazioekin batera azter dezan.

Are gehiago, joan den urtarrilaren 21ean, Cádiz, Zerga eta Finantza Politikari buruzko Kontseilua egin eta gero ezarri zen fondoak eskatzeko epea, 1997ko martxoaren 1erako erabaki baitzen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatua betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 20a

Toki Administrazio Kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

## **Marcillako D.B.H.ko ikastetxean batxilergoa aldatu edo destolesteari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Marcillako D.B.H.ko ikastetxean batxilergoa aldatu edo destolesteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 17ko 9. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 27a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Félix Taberna Monzón Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroa-

ko Gobernuak aipatu ikastetxean aldaketaren bat egin omen nahi duela eta, Marcillako D.B.H.ko ikastetxeko guraso elkarteetan sortu den egonezinarari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

Departamentuak inolaz ere ez du pentsatu aldatzea Marcillako "Marqués de Villena" Bigarren Hezkuntzako Institutuan batxilergoek egun duten egoera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Unibertsitatez besteko irakaskuntzan baimendu, diruz lagundu eta itundu diren unitate guztiei eusteari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Unibertsitatez besteko irakaskuntzan baimendu, diruz lagundu eta itundu diren unitate guztiei eusteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 1a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du, Unibertsitatez besteko irakaskuntzan baimendu, diruz lagundu eta itundu diren unitate guztiei eusteari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Urteroko aurrekontu legeak finkatzen du hezkuntza-gastua. Ondorioz, zuk egindako lehen galderaren erantzuna Nafarroako gizarteak, Parlamentuan dituen ordezkarien bitartez, aplikatu nahi duen gastu publikoaren bolumen guztiaren araberakoa da.

2.- Departamentu honek ez du iritzirik eman beharrik etorkizuneko balizko egoerei buruz, are gehiago gauzatzea ez badagokio. Bestela, gizarte-asaldura sor daiteke, beharrik gabe.

3.- Gutxienez ere, zalantzan jar daiteke Nafarroan lege bat egiteko aukera (Euskal Autonomi Elkartearen ez dago horrelakorik, ezta beste autonomi elkarteetan ere), hezkuntza mundua dinamikoa den aldetik. Beti ere, Nafarroako eskola plangintza eredutzen duten oinarrien artean ageri da, Hezkuntza Goi Batzarrak onartu baititu, sare bien arteko egungo orekari eutsiko zaiola.

4.- Utopian murgildurik, baiezkoa eman behar-ko litzaioke familiek ikastetxea aukeratzeko duten askatasuna baldintzarik gabe errespetatzeari, LODEK jasotzen baitu ( 4 B artikulua, "gurasoek

edo tutoreek eskubidea dute botere publikoek sorturikoez bestelako ikastetxea aukeratzeko”), irakaskuntza-askatasunaren konstituzio eskubidea (27. art.) garatuz. Haatik, errealitateak plangintza eskatzen du hezkuntzan zerikusia duen oren askatasuna eta eskubideak bideratu eta uztartzeko, alegia, familiak ez ezik, irakasleak eta ikastetxeen titularrak ere. Estatuaren eskumena dugu hori, ekonomiaren plangintza orokorra egiteko ahalmena eman zaionez (E.K.ko 149-13 artikulua).

5.- Galderak aipatzen dituenak direla eta, bidegarritasunik ez dutenak, ikastetxe osoak izan ala ez, hiri edo herrikoak diren ala ez. Nafarroako herrien bilakaera demografikoak eta gizarte eta ekonomi garapenak erabat baldintzatzen dute gorabehera hori. Hezkuntza Departamentuak hori dituzten baldintza horiek eta ez dago bere esku kontrolatzea.

6.- Alderatzuz gero, A eta D ereduak gora egiten badute ere, ikasleen kopuruaren beherakadak Nafarroako hezkuntza-sistema osoa ukitzen du. Beraz, ez da planteatu behar irakasle berriak hartzea, baizik eta haien “birmoldaketa”. Kontuen Ganbarak iradokizunen bat edo beste egin du horretaz Nafarroako unibertsitatez besteko irakaskuntzaz egin duen txostenean. Beste alde batetik, bigarren hezkuntzaren egitura berria ari gara taxutzen, eta hortik aterako dira langile-beharrizanak, sistemarendako neurriak egokienak hartzeko bide emango dutenak.

7. Itunen sistemari bagagozkio, Estatu legeek ezartzen dutena errespetatzen da (LODEko 49-5 artikulua eta abenduaren 18ko 2377/1985 Errege Dekretuko IV. Titulua).

8.- Legeak ez du “parekatzerik” aipatzen, baizik eta antzekotasuna, ordainketei buruz, beti ere, ez lan-baldintzei buruz. Kostuei bagagozkie, nahi den analogia edo antzekotasuna definitu beharko da hura lortzeko epea finkatu aurretik, orain arte lortu ez bada, behintzat. Edonola ere, Departamentua gaia aztertzen ari da, eta azterketatik aterako dira horri buruzko ekintza eta epe egokiak.

9.- Irakasleei beste lanpostu bat emateko, itunpeko irakaskuntzaren eta publikoaren artean irakasle/ikasgela ratioak duen aldeari begiratzen zaio; eta hutsik diren lanpostuei. Neurri horrekin LODEk ezartzen duena betetzen joan gaitzke:

- Haur eta lehen hezkuntzan: ikasgelako ikasle bat
- DBHko 1. zikloan: ikasgelako 1,25
- DBHko 2. zikloan: ikasgelako 1,36
- BBBn: ikasgelako 1,36
- LH1en: ikasgelako 1,56
- LH2an: ikasgelako 1,44

Beraz, hezkuntza sistemak dituen beharrezan erantzun nahi zaie zuzentasun eta ekitatez. Alor bateko industri birmoldaketarako edozein prozesutan egin ohi da.

10.- Nafarroako Gobernuaren beka sistema Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren beka sistemaren osagarri da. Unibertsitate mailako laguntzen politika orokorra eztabaidatzen ari dira orain, unibertsitate-irakaskuntzaren finantzaketarekin batera. Politika horrek duen edozein aldaketak eragingo dio beka-sistema orokorrari, Foru Komunitatekoak barne. Edonola ere, norbanakoen laguntzen politikaren munta, Nafarroako gizarteak, Parlamentuko ordezkarien bitartez, aplikatu nahi duen gastu-bolumenaren arabera da.

11.- Urtetako esperientzia hartu ondoren, izandako lorpen eta porrotak aztertu beharko lirateke, objektiboki, gutxiengo etnikoetako ikasleen eskolatzaren errealitate zailari arreta egiteko neurriak hartu ahal izateko.

12.- Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleen eskolatzeari ezin hobeto bideratu da haur eta lehen hezkuntzan, behar bezalako arreta ematen zaio Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan, eta derrigorrezkoaren ondokoan, ohiko bidez gain, ikasgela balioanitzak eskaintzen dira zereginak ikasteko, eta Lanbide Heziketan, egokitzeko ikasgelak. Aztertzen ari dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan emango zaien erantzuna, kontsideratuz, batez ere, ezintasun psikikoek irakaskuntza maila honetan sortarazten duten ikasteko erritmo ezberdintasun handiagoak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 26an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros



## Ondasun higigarriak kontserbatu eta konpontzeko eman diren laguntzei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Ondasun higigarriak kontserbatu eta konpontzeko eman diren laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 7ko 8. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 1a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak, galdera egin du Nafarroako ondasun higigarriak kontserbatu eta konpontzeko laguntzak emateko irizpideei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Abenduaren 4ko 233/1985 Foru Dekretuak, Nafarroako Ondare Historiko eta Artistikoaren baitan dauden ondasun higigarriak zaindu eta konpontzeko laguntzak ematea arautzen duenak, halaxe dio bere 8. artikuluan: «Ematea. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zerbitzuak txostena egin ondoren, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariari igorriko zaizkio eskariak, eta hark erabakiko laguntza emateaz.»

2.- Museo, Ondasun Higigarri eta Arkeologia Ataleko teknikari eta zuzendariek egiten dituzte

eskariei buruzko txostenak. Txosten hori agertu egiten da Ondaren Historikoaren Zerbitzuak eta Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeak ematen duen proposamenean. Proposamena Hezkuntza eta Kultura Kontseilariari igortzen zaio, Foru Aginduz har dezan erabakia.

3.- Dirulaguntzak emateko irizpideak interesa, premia eta aurrekontu-baliagarritasuna dira.

4.- Ez dago esleipenei lehentasuna emateko zerrendarik. Badira, ordea, Nafarroako Kultura Kontseiluak egindako zerrendak, erretaula, organo eta urrezko pieza onenei buruzkoa. Horiek bereoneratzeko dirulaguntza eskatuz gero, zerrenda horiek erabiliko lirateke interesa neurtzeko.

Ondasunen kontserbazio egoerak ematen du premia, eta teknikari egokiek baloratzen dute.

5.- Ondare Historikoaren Zerbitzuak Kultura Zuzendaritza Nagusiari bidaltzen dion proposamenarekin batera doa dagokion txostena. Nafarroako Gobernuak alor honetan egiten dituen kontratazioei Kontratazio Mahaiaren aktak eransten zaizkie.

Hori guztia jakinarazten dizut, Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 20an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagokion «Kreditu erreserba»ri buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagokion «Kreditu erreserba»ri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin

agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 17ko 9. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 4a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak, galdera egin du Departamentuko “kreditu erreserba”ri buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari buruzko datua zuzena den.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren gastu-aurrekontuak 13.084,2 milioi pezeta jotzen du 1997an. Urtean zehar konprometitu eta gaztatuko dira, hori berez datorren gauza da. Beraz, urteko lehen zati honetan, 2.050 milioi pezeta izango lirakeke, gutxienez, ohiko administrazio jardunari jarraiki konprometituko ez lirakekeenak.

2.- Zer kontusailetan eta zenbat aurrekontu-lerrotan eginen den “erreserba” hori eta zenbat

dirutan lerro bakoitzean (bat baino gehiago ukitzen badu).

3.- Zer eragin izan dezakeen Departamentuarendako “kreditu erreserba” horrek aurtengo urte honetako lehen sei hilabeteetan, lanaren plangintzari eta egin beharreko gastu edo inbertsioari dagokionez.

Jarduketa ekonomikoaren bilakaerak esango du aurrekontuak egindako dirusarrera-aurreikuspena betetzen ote den. Ezin jakin, ordea, urtearen zati bat igaro arte. Beraz, ez da beharrezkotzat jo erreserba berezirik zehaztea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 27an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

---

## **Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari dagokion “Kreditu erreserba”ri buruzko galdera**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagokion “Kreditu erreserba”ri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 17ko 9. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 4a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak, galdera egin du Departamentuko “kreditu erreserba”ri buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna, Biltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua xedatuarekin bat:

1.- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ez daki Ekonomi eta Ogasun Departamentuak kreditu erreserba egitea eskatu duen. Gastu-konpromezuak zaintzeko aholkua eman dute, ordea, haien bilakaera dirusarrerarekin uztartuta joan dadin.

2.- Ez dago inongo aurrekontu-lerroren gaineko dispoziziorik, Departamentuko aurrekontu guztiaren bilakaeraren jarraipen orokorra baino ez da egiten.

3.- Nekazaritza Departamentuak ez du ekitaldi-ko lehen sei hilabeteetarako aurreikusi jarduketa-ildoak aldatu, inondik ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 27an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro



## Telefonia mugikorraren instalazioei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak telefonia mugikorraren instalazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urtarrilaren 7ko 2 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 4a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak idatziz erantzuteko galdera egin Udalek lurzorua lagatzeari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna, Biltzarreko Erregelamenduko 190. artikuluen ondorioetarako.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak bere eskumena du, besteak beste, Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak ematen dion ahalmena, alegia, Foru Administrazioak bermatu egiten dituela toki entitateetako organo eskudunek herri-ondasunen gainean hartutako erabakiak.

Esandako Foru Legeko 140. artikuluen arabera, Administrazioak burutu beharreko jarduketak da Nafarroako Gobernuak onestea toki entitateek

proposatu herri ondasunen desafektazioa. Desafektazioaren ondoren, lurren erabilpena laga edo karga daiteke. Baita ere lursaila saldu edo trukatu, hartara, aipatu entitate lokalek alde aurretik justifikatu behar dute lortu nahi den xedea erdiesteko beste modurik ez dagoela eta Nafarroako Gobernuak salmenta edo trukea onura publiko edo sozialtzat deklaratu.

Testuinguru horretan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak izapidatu eta txostendu egiten ditu Gobernuaren aurrean, toki entitateek proposatzen dituzten desafektazioak, horien helburua, besteak beste, herri lurretan antenak, errepikagailuak, haize-errotak eta abar jartzea izaten delarik.

Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko aipatu 140. artikuluen dioen legez, desafektazioak erabilera-lagapenerako izan ohi dira, eskuarki, eta toki entitateak helarazten dituen dokumentuen artean badago baldintzen orria, lagapenaren epearekin, eta lurra eskatutako helburuetarako erabiltzeagatik ordaindu behar den kanonarekin.

Epea eta kanonaren zenbatekoa aldatu egiten dira espediente bakoitzean, toki entitateen irizpideen, ukitutako lursailen eta toki entitateek berak erakutsitako interesaren arabera.

Iruñean, 1997ko otsailaren 26a

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro





NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 165 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--